

SANFAUSTOAK

Sasikoa areto- futbol taldea eta Jesuitak ikastetxea, Durangoko txupinero / 4

Elene Atutxa durangarra izan da kartel lehiaketako irabazlea, eta bere lanak iragarriko ditu sanfaustoak



Txupineroak, jai batzordeko kideak, kartel irabazlea eta udal ordezkariak.

HITZALDIA

"Hezkuntzan dago gakoa ijitoen eta ijito ez direnen arteko bizikidetzan"

Kale Dor Kayiko elkarteko kideek ijito herriaren historia eta gaur egungo egoera izango dituzte berbagai Durangoko hitzaldian / 2-3



Jon Jimenez eta Paulino Amaya, Kale Dor Kayiko elkarteko kideak.



"Publiko berriaren bila
eta aurreiritziak apurtzen
jarraitzen dugu"

Judith Argomanizek ia 15 urte daramatza
Lasalagaz dantza emanaldiak egiten; 'Alai Familian'
ikuskizuna domekan helduko da Durangora / 17

Judith Argomaniz.

REGINA ETANOWSKI

MENDI LASTERKETA

Mañaritik Atxetara lehiatuko da zapatu honetan, Durangaldeko Koparako bosgarren proba / 21



ANBOTO

"Ijito herria guztiz ikusezin egin dute. Zelan izan liteke historia liburuetan ia ez agertzea?"

JON JIMÉNEZ ETA PAULINO AMAYA KALE DOR KAYIKO ELKARTEKO KIDEAK

Kale Dor Kayiko elkarteko kide bik ijito herriaren iraganaz, orainaz eta geroaz berba egingo dute Durangon, irailaren 24an eskainiko duten berbaldian



Jon Jiménez eta Paulino Amaya, ijitoen banderagaz eta ikurrinagaz osaturiko banderari eusten.

Joseba Derteano DURANGO

2025ean 600 urte bete ziren Penintsulan ijito herriaren lehenengo presentzia dokumentatu zenetik. Urteurren horren harira, egoitza Txurdinagan duen Kale Dor Kayiko elkarteko kideak herririk herri dabilta ijito herriaren historia, kultura eta gaur egungo errealtatea ezagutarazten. Hurrengo galdialdia Durango izango da, irailaren 24an, 18:00etan, liburategian. Jon Jiménez Cortés (Bilbo, 1980) eta Paulino Amaya Jiménez (Sestao, 1990) elkarteko kideak dira.

Zer esan gura du zuentzat horrelako data bat gogoratzeko?

Paulino Amaya: Ijito herria hemen geratuko dela aldarrikatzeko eta gogoratzeko aukera da. 1425etik Penintsulan errotuta gaude eta ondo dago hori gogoratzea. Batzuetan ahaztu egiten zaigu, 600 urte igaro on-

doren ere, gure eguneroko bizitzako hainbat esparrutan oraindino ikusezin egiten gaituztela. **600 urteko historiari ari gara. Zer dakigu lehenengo ijito komunitateen etorreraz eta Penintsulako lehenengo urteez?**

Jon Jiménez: Hasieran, erresumen garaian, harrera ona izan zen. Izan ere, desberdina izatea ez zen txartzat hartzen hasieran. Penintsulan arabiarrek, juduak... zeuden. Herrialde batetik bestera ibilitako esperientziari eta ezagutzei eskerrak aberastutako lanbideak ekarri genituen, hemen ordura arte ezezagunak ziren teknikekin. Esaterako, errementaritzan, zilargintzan, animalien salerosketan... Baina dena aldatu zen Errege-erregina Katolikoak boterera heldu zirenean. 1499an, lehenengo Pragmatica ezarri zuten eta horrek ijito herriarentzat batere mesedegarria ez zen ideologia baten ha-

siera markatu zuen. Denak berdinak izatea gura zuten, herria errazago gobernatu ahal izateko: erlijioa bera, hizkuntza bera... Eta, jakina, ijito herria nomada zen, ez genion inongo jauni men egiten, eta kontrolik barik mugitzen ginen. Gu kontrolatzea gatxa zen, eta hor hasi zen arazoa. Ez zen elkarbizitza-gaz loturiko arazorik izan; ijito herriak bizitza ulertzeko eta bizitzeko zuen modua zen haien txartzat arazoa.

Zuen berbaldietan, euskal lurretan ijito herriak izan duen presentzia historikoaz ere berba egiten duzue.

"Hezkuntzan dago gakoa aldaketarako, eta ijitoen eta ijito ez direnen arteko bizikidetzarako"

J.J.: Penintsulan egon gineneko lehenengo frogak 1425ekoak dira; horren erakusgarri da, esaterako, Aragoiko salbokondutua. Euskal lurretan ere baditugu frogak, ordutik oso gutxira, 1435ekoak. Seguruenik, lehenagotik ere bagenbiltzan hemendik. Seguru gaude urte horren aurretik ere bazirela ijito familiak hemen, baina ezin dugu hori frogatu. Eta hasiera hartan nahiko harrera ona izan zen, Penintsulako gainerako lekuetan legez. Baina XVI. mendean dena aldatu zen. Orduan aldatu zen ijito herriaren eta euskal herriaren arteko hartu-eman. Legeak ijito herriaren aurka hainbeste gogortu ziren ze, euskal lurretako zenbait lekutan ijitoen presentzia debekatzera heldu zirela.

P.A.: Edozelan ere, hartu-emanak aurrera jarraitu zuen, eta hartu-eman horrek, gerora, erromintxela hizkeraren sorrera ekarri zuen: hizkuntza bien arteko nahasketa, gugaz ekarri genuen erromanesaren eta euskararen artekoa. Zoritzarrez, galdu egin da, erromanesagaz gertatu den legez.

J.J.: Erromintxelak erakusten du hartu-eman ez zela legeek adierazten zuten bezain txarra izan. Familia batzuek euskal kultura euren kulturaren parte egin zuten. Baziren ijito txistulariak, eta baziren euskal herriaren bereizgarri den txapela janzten zuten ijitoak ere; badaude hori egiaztatzen duten argazkiak. Abizen batzuk ere hartu zituzten, hala nola Etxebarria eta Etxepare.

Uste duzu gizarteak benetan eza-gutzen duela ijito herriaren historia eta hark egindako ekarpena?

J.J.: Ez, ijito herriaren historia guztiz ikusezin egin dute. Zelan izan liteke Europan, Penintsulan eta Euskal Herrian mende askotan zehar gutxiengo etnikorik handiena izan den herria historiako liburuetan ia agertu ere ez egitea? Zelan izan liteke Penintsulako gutxiengo etnikorik handiena hain ikusezin egotea? Unibertsitateetan berbaldiak ematen ditugunean eta ijito herriaren historia hainbat profesionalengana hurbiltzen dugunean, galdera bera egiten dugu: zuen ibilbide akademikoan, inoiz berba egin al dizuete ikasgelan ijito herriari buruz? Erantzuna ezezkia izaten da. Gure historia ez dago jasota. Are gehiago, ia ez dago ijito herriaren gaineko

aipamenik, eta, agertzen denean ere, askotan ikuspegi marjinal batetik egiten da, delinkuentziagaz lotuta. Ipuinetan ere gaizto edo lapur legez agertzen gara. Hau da, agertzen garenean ere, ez da gure historia eta gure kultura ezagutarazteko, ijito herriaren kulturagaz zerikusirik ez duten jokabide batzuekin lotzeko baino.

Zuen berbaldietan ijito herriaren gainean dauden aurreiritzietan ere azpimarra egiten duzue. Zeintzuk dira aurreiritzi horiek eta zelan agertzen da gaur egun?

P.A.: Egunerokoan bizi dugu, bizitzako esparru guztietan: ikastetxeetan, lan munduan, etxebizitza bat bilatzeko orduan edo lan bat aurkitzen ahalegintzen garenean. Horren adibide da Neurto 2022 barometroa, Ikuspegik egindakoa. Euskal gizarteak ijito herriagazko dituen pertzepzioak eta jarrerak aztertzen ditu. Hasieran, galdera orokorrak egiten direnean, jendeak politikoki zuten erantzuten duela dirudi. Adibidez, galdetu zutenean ea euren burua arrazistatzat zuten, gehienek ezetz zioten. Baina galderak sakontzen hasi zirenean, errealtatea beste modu batekoa dela ikusi zen. Etxebizitzaren arloan, esaterako, hamar pertsonatik lauk baino gehiagok aitortu zuten ijito bati etxebizitza alokatzea saihestuko zuketela edo ez zioketela alokatuko. Hezkuntzan ere antzeko zeozer gertatzen da: hamar pertsonatik ia lauk ez lukete gura euren seme-alabak ijito adingabe asko dagoen ikastetxe batera joatea. Eta, lan munduan, hamar pertsonatik ia hiruk aitortu zuten nahiago zuketela ijito bat lanerako ez kontratatatu, prestakuntza eta esperientzia bera izanda ere. Beraz, gure bizitzako esparrurik garrantzitsuenetan ikusten dugu, zoritzarrez, aurreiritziek eta ijitoen kontrako arrazakeriak oraindino ere presentzia handia dutela.

J.J.: Beste galdera batek ere ondo erakusten du ijitoekiko dauden aurreiritziak. Esaterako, galdetzen denean ea gustatuko litzaiekeen euren seme-alabak pertsona ijito bategaz ezkontzea. Galdera horretan, hainbat kolektibo edo gutxiengo aipatzen da, eta horien aurrean jendeak duen jarrera neurtzen da. Ijito herria azken postuan agertzen da erantzunetan; hau da, kolektibo horien artean aurreiritzirik gehien sortzen duena da.

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak eta jai batzordeak sanfaustoei begirako hiru nobedade jakinarazi dituzte asteon: aurtengo txupinero biak nortzuk izango diren argitu dute, baita jaiak zein kartelek iragarriko dituen aurreratu ere. Aurtun, Sasikoa areto-futboleko taldeak botako du txapligu nagusia udaletxeko balkoitik. Taldea zorioneko dago 30 urteko bidea betetzeaz gainera areto-futboleko Ohorezko Mailara igotzea lortu berri duelako. Francis Muñoz taldeko presidentek esker oneko berbak izan ditu, eta pregoia "ahalik eta modurik duinenean" irakurriko dutela iragarri du. "Izugarria izango da jaiak barru-barrutik bizitzea, eta zer esanik ez herrikide bolutarioen lana gertutik ezagutzea", esan du Muñozek. Jessica Ruiz jaietako zinegotziak futbol taldearen ibilbidea txalotu du: "Sasikoak komunitatea eratu du urterik urte, kirola bultzatu du, eta bidea zabaldu die belau-naldi berriei. Jarrera konprometitua erakutsi dute beti". Halaber, udal programako txapligu nagusia urriaren 10ean jaurtiko dela iragarri du Ruizek.



Jai batzordeko kideak, udal ordezkariak, txupineroak eta kartel irabazlearen egilea eguazteneko aurkezpenean.

Sasikoa futbol taldea eta Jesuitak ikastetxea, sanfaustoetako txupinero

Kirol taldeak 30 urte bete eta areto-futboleko Ohorezko Mailara igotzea lortu du

Urtero-urtero Durangoko ikastetxe batek izaten du Umeen Eguneko txapligua botatzeko ardura, eta aurtun Jesuitak ikastetxearen txanda izango da. Ikasle ordezkariak argi utzi dute ikastetxeko mezua bikain partekatuko dutela gainerako umee-

kin. "Oso pozik gaude eta asko gozatuko dugu. Kuadrillen ekin-tzetan parte hartzen dugu, tortilletan, mozzorroetan, eta abar. Zezenak ikustera joaten gara gurasoekin, eta barraketara txurroak jatera. Gogotsu gaude", esan dute. Moises Urien ikas-

tetxeko arduradunak gaineratu du mezuak "euskara, mundu bidezkoago baten aldeko jarra- eta elkarlana" izango dituela osagai. "Jesuitak ikastetxeko balioen isla", hain zuzen ere.

Sanfaustoei loturiko nobedadek hirugarren izen bat ere

utzi dute: Elene Atutxarena. Durangarrak irabazi du jaietako kartel lehiaketa, *Jaietako taupadak* lanagaz, eta, beraz, bere diseinua jaietako euskarri guztietan ikusi ahal izango da. Berea izan da botorik gehien lortu duen lana; guztira, 28 kartel aurkeztu dituzte lehiara, eta zazpi finalisten artean Atutxaren lana gailendu da. Jessica Ruiz zinegotziak esan du "laster" argituko dutela jaietako egitaraua.

Txosnagunean prest

Txosnagunean urriaren 9an abiatuko dituzte jaiak, txupinazoa Intxaurre Elkartek botata. Durangoko elkarteak 40. urteurrena ospatu zuen ekainean.

Musika eskaintzari dagokionez, urriaren 11n kartelburuek joko dute: Putas Amak, Marte Lasarte eta Siwanaba taldeek, hain zuzen ere. Herriko musikariek ere izango dute aukera oholtza gainera igotzeko. Moonshinerds, Fosil eta Katu Durangaldeko taldeek kontzertua emango dute urriaren 9an. Gazte Eguna, Karro Poteo Kuirra eta Mozzorro Eguna ere egingo dituzte.

Durangok Rubik Kubo Irekien Lehiaketa hartuko du asteburuan

Ekaitz Herrera DURANGO

Irailaren 18an, 19an eta 20an, Landako Guneko hirugarren moduluak Durango Open Lehiaketa 2026 hartuko du, Rubik kuboen lehiaketa ofiziala. 40 parte hartzaile baino gehiago bilduko dira bertan.

Lehiaketak *speedcubing*-eko hamaika modalitate bilduko ditu, eta irailaren 20ko domekan 16:30ean egingo den sari banaketagaz amaituko da.

Hasiberrientzako ikastaroa

Antolatzaileek azaldu dutenez, topaketa ez da kuboak egiten esperientzia dutenentzat izango bakarrik. Irailaren 18an, 16:00etatik 18:00etara, doako tailerra eskainiko dute Rubik kuboak osatzen ikasteko, zaletasun honetan lehenengo urratsak egin gura dituztenei zuzenduta. Jardueraren helburua pantailarik bako aisialdi-proposamenak bultzatzea da, eta, aldi berean, parte hartzaileen bizkortasuna eta trebetasuna probatzea.

Garuna eta osasuna aztergai Durangon EHUren dibulgazio saioetan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangok garunari, buruari eta osasunari buruzko saio dibulgatiboak hartuko ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik. Zikloa irailaren 26tik 29ra bitartean izango da, eta ume eta gazteei zuzenduriko tailerrak eta herritar guztiei zuzenduriko berbaldiak eskainiko ditu. Tai-

lerrak irailaren 26an izango dira, 17:00etan, Nevers ikastetxean, eta 8tik 13 urtera arteko haurrei eskainiko zaizkie. Berbaldiak irailaren 27an eta 29an izango dira, San Agustin Kultur Gunean, doan. Adituek neurozientziaren, buruaren eta osasunaren inguruko ezagutzak eta hausnarketak partekatuko dituzte herritarrekin.



EHUko medikuntza ikasleak, ikasketa saio batean. EHU

Durangoko pentsiodunen protesta osasun publikoaren defentsan

J.G. DURANGO

Durangoko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizaziora deitu du irailaren 21erako, osasungintzan bizi duten egoera salatzeko. Mobilizazioa udaletxe plazatik abiatuko da, 12:00etan. "Gure osasun zentroetan aste batera edo bira ematen da ordua familia-medikuagaz egoteko, hiru astetik hilabetera bitarteko telefono-deiak, eta, espezialitate

batzuetan, lehenengo kontsultarako hitzordua hilabetera eta urtebetera da", azaldu dute. Familia medikuen lan baldintzak "txarrak" direla ohartarazi dute eta eskaera hau egin dute: familia-medikuntzan eta pediatrian gehien 48 orduren barruan izatea kontsulta presentzialak, eta espezialitateen kasuetan hiru hilabete baino gutxiagoko epea izatea.



Durangoko pentsiodunak.

60 komertziok euren produktuak kalera aterako dituzte asteburuan

Irailaren 18an eta 19an izango da Dendak Bai Fest Kalean inizatiba, Durangon. Hainbat ekimen egongo da

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Gaur, irailak 18, eta bihar, irailak 19, Dendak Bai Fest Kalean ekimena egingo dute, Dendak Baik antolatuta. Ekimenaren asmoa herriko merkataritza Durangoko kaleetara eramatea izango da, gune komertzial nagusiak animatu eta asteburu osoan zehar giro berezia sortzeko. "Ekimen berri honegaz, herriko merkataritzaren aldeko apustua egiten jarraitu gura dugu, eta durangarrak eta inguruko herrietako herritarrak Durangoko kaleetatik ibiltzera,

saltokiak ezagutzera eta jardueraz gozatzera gonbidatu gura ditugu", azaldu dute Dendak Baiko kideek.

Hori horrela, egun bi horietan, Dendak Bai Fest Kalean ekimenean parte hartzen duten komertzioek euren jardueraren zati bat kalera aterako dute, euren produktuak denda aurrera aterako dituzte.

Programazio berezia

Bestalde, komertzioek antolatutako ekintzez gainera, Dendak Baik programazio berezia pres-

tatu du astebururako, kaleak girotu eta festa giroa sortzeko. Gaur, esaterako, 16:30etik 20:00etara, puzgarriak eta aurpegi-margotzea egongo dira Ezkurdiko plazan.

Bihar, 10:00etatik 13:30era, Andra Marian ludoteka, jolas erraldoiak eta aurpegi-margotzea egongo dira. Eta 12:30etik 14:30era kantu poteoa egongo da, Txerokiak taldeak girotuta. Kantu poteoa Xixilu tabernan hasiko da eta Alde Zaharreko hainbat leku zeharkatuko du.

Bihar, ludoteka, jolas erraldoiak, aurpegi-margotzea eta kantu poteoa egongo dira, besteak beste



Dendak Baiko kideak eta politikariak ekimenaren aurkezpenean.

Ekintza ugari asteburuan Durangon, mugikortasun jasangarria bultzatzeko

M.Z. DURANGO

Beste urte batez, Durangok bat egin du Mugikortasunaren Europako Asteagaz. Eta ekimen horren barruan, egitarau zabal antolatu dute. Hori horrela, herriko hainbat gunetan hezikuntzara, aisialdira eta sentsibilizaziora bideratutako jarduerak egiten dabilta, mugikortasun seguruagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa bultzatzeko. "Mugikortasunaren Europako Astea aukera bat da herritarrak sentsibilizatzeko eta haiei entzuten jarraitzeko", azaldu du Mireia Elkoroiribe alkateak.

Bihar, esaterako, 12:00etatik 15:00etara, skate eta bizikleta zirkuituak egingo dituzte Zu-

malakarregin eta Ezkurdin. Eta 13:00etan lau kilometroko ibilbidea osatuko dute Durangoko bizikleta-sarea ezagutzeko. Inguru horretan, bigarren eskuko bizikleten salmentarako gune bat ipiniko dute.

Bestalde, Jose Migel Barandiaran kalean hainbat jarduera egingo dute: xakea, bizikleta-eskulanak eta bike-paint, besteak beste.

Irailaren 20an, elkartasuneko tartea ere egongo da; izan ere, zenbait ikastetxek Bizikleta Solidarioa ekimena egingo dute La Cuadri del Hospi elkarteari laguntzeko. Proba honek Ezkurdi plazan izango du irteera, 10:30ean, eta parte hartzaileek



Mugikortasun Astearen aurkezpena.

4 zein 11 kilometroko ibilbideak izango dituzte aukeran. Parte hartu gura dutenek gutxienez 3 euroko ekarpena egin beharko dute dortsala eskuratzeko. Horrez gainera, Tabirakok 3x3 txapelketa egingo du merkatu plazan.

Zaldibarko Udalak diru laguntzak prestatu ditu euskara ikasleentzat

M.Z. ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak diru laguntzak prestatu ditu joan zen ikasturtean, 2025-2026 ikasturtetan, euskara ikasten ibili ziren ikasleentzat. Udalak jakinarazi duenez, eskatzaileek Zaldibarren erroldatuta egon behar dute eta homologatutako ikastaroak izan beharko dituzte eginda. Era berean, %80ko gutxienezko asistentzia egiaztatu beharko dela jakinarazi dute.

Diru laguntzen zenbatekoak hauek izango dira: trinkotasun txikiko ikastaroetan, asistentziaren %80-90 beteta dutenek matrikularen %75 jasoko dute, asistentziaren %90 baino gehiago dutenek matrikularen %90,

eta asistentzia %100 dutenek matrikularen %100. Trinkotasun handiko ikastaroetan, kostuaren %50eko laguntza izango dute. Eta autoikaskuntzaren kasuan, 600 euro jaso ahal izango dira gehienez.

Interesdunek urriaren 30era arteko epea izango dute eskariak eta beharrezko dokumentazioa udaletxean aurkezteko.

Diru laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da %80ko gutxienezko asistentzia

PABILIOIA SALGAI
lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

"Aurten hainbat denda itxi dute. Berrizen moduko herri batentzat galera handia da"

Bizi Berriz ekimenaren bigarren edizioa egingo dute zapatuan, 17:30ean hasita



Agurtzane Ibabe eta Juan Ramon Turrion.

Aritz Maldonado BERRIZ

Uda amaitu eta ikasturte berriari hasiera eman eta gero, Berrizko Merkataritza Elkartek Bizi Berriz ekimenaren beste edizio bat antolatu du tokiko merkataritza bultzatzeko. Irailaren 1etik 19ra bitartean egindako erosketetan lorturiko tiketekin —erosketak hamar euro baino gehiagokoak izan behar dira— sari-erruleta egingo dute. Poltsak eta herriko dendetan gastatzeko bonuak izango dira sariak; sarien zerrenda osoa *berrizkomerkatarieus* webgunean dago. ANBOTO Berrizko Agurtzane Ibabe

eta Juan Ramon Turrion merkatariekin batu da.

Zelako harrera izaten ari da kanpaina?

Juan Ramon Turrion: Horrelakoak, egunean bertan ikusten dira batez ere. Egunotan txartelak banatu ditugu, baina ez dakigu zenbat jende etorriko den zapatuan.

Agurtzane Ibabe: Lagun asko gogoratu da iazkoagaz, eta ahalgina egiten gabiltza zeozer desberdina eskaintzeko.

Zelakoa da Berrizko merkataritzaren egoera?

J. R. T.: Oso konplikatua. Herriko merkataritza maldan behe-

ra doa eta herria hiltzen dabil. Aurten bertan, herriko hainbat denda itxi dute. Berrizen moduko herri batentzat galera handia da, ez dagoelako belaunaldi erreleborik.

A. I.: Kontsumo ohiturak guztiz aldatu dira. Jendeak denbora gutxi dauka eta geroago eta joera handiagoa dago erosketak toki bakar batean edo Internet bidez egiteko. Egunak 24 ordu ditu eta lehen herrian bertan denbora gehiago igarotzeko ohitura zegoen.

Zapatukoaren moduko ekimenek laguntzen dute herritarrengan kontzientzia pizten?

A. I.: Halako ekimenek ez dute joera orokorra guztiz aldatuko, baina balio dute desagerpena atzeratzeko eta jendea horretaz konturartzeko. Azken batean, gauza bereziak eskaintzen ditugunok iraungo dugu, tratua pertsonala eta kalitatezkoa eskaintzen ditugunok.

J. R. T.: Gatx da frankizia handiekin edo Interneteko salmentekin lehiatzea. Administrazioek esaten dute badaudela laguntzak, baina paper mardoa eskatzen dute eta betebeharrak handiegia dira guretzat.



Ekitaldiko irudi bat. GEREDIAGA ELKARTEA

Frankismoaren biktimak omendu dituzte Berrizen, beste urte batez

A. M. BERRIZ

Urtero legez, irailaren 11n frankismoaren biktimak gogoratu zituzten Berrizen, programazio berezi bat antolatuta. Memoria-aren eta Giza Eskubideen taldeak deituta, ekitaldi jendetsua egin zuten. Lore eskaintza eta dantza egiteaz gainera, ekitaldian frankismoaren biktima guztiak gogoan izan zituzten. Ekitaldia amaitzeko, taldearen leloa ekarri zuten gogora: "Justiziaren eta askatasunaren alde borrokatuz adierazi ziguten bidea; horregaitik, beti gogoratuko ditugu giza eskubideak aldarrikatuz".

Hain zuzen ere, 1937ko irailaren 11n Felipe Urriaga eta Jose

Agirre berriztarrak fusilatu zituzten, Derion (Bizkaia). Urte bereko abuztuan Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta urte batzuk geroago Fermin Aranguren, Asturiasen.

Liburuaren aurrerapena

Iazko ekitaldian, *Gerra eta errepresioa 1936-1939* liburu proiektuaren aurkezpena egin zuten. Aurtengo ekitaldian, proiektu horren zati bat aurreratu zuten. Garai hartan Berrizen gertatutako pasarteak batu eta testu ingurua kokatzea du helburu lan honek. Ekitaldian esandakoaren arabera, liburuak datorren urteko ekitaldian aurkezteko asmoa dute.

Gure Lurreko Merkaturia azoka martxan, martitzenetik aurrera

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Tokiko produktua herritarrei hurbiltzeko asmoagaz, Gure Lurreko Merkaturia aurkeztu dute

Zornotzako Udalak, Urkiola Landa Garapenak eta Zornotzako hainbat ekoizleak. Irailaren 22tik aurrera, martitzeneko egingo



Ordezkaritza politikoa eta ekoizleak.

dute azoka, 17:00-20:00 bitartean eta zortzi ekoizleren produktuak erosi ahaliko dira bertan.

"Merkatu honek lehen sektorea ahaldunduko du. Ordutegiak, gainera, herritarrek hurbiltzea erraztuko du", nabarmendu du ortu-lanetan hamabost urte baino gehiago daraman Jon Bastante ekoizle zornotzarra. Urtza Uriarte Iraunkor elkarteko kideak ere ideia bera azpimarratu du. "Bertako ekoizpena eta kontsumoa bultzatu behar ditugu, eredu zirkular baten mesedetan", azaldu du Uriartek. Erramun Osa Landa Garapeneko lehen-dakariak ere, bide beretik jo du. "Urrutikoak izango balira bezala begiratzen diogu lehen sektoreari, baina bertan daude. Gaur egun, zuzeneko harremanak eraikitzeke zailtasunak dituzte, eta horregaitik dira hain garrantzitsuak plaza hauek".

Euskal Herriko ardi-txakur txapelketa Axpen izango da, zapatuan

A. M. ATXONDO

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ardi-txakurrik onenak Axpen lehiatuko dira zapatuan, Euskal Herriko ardi-txakur txapelketan. Zaleek urteroko hitzordua dute eta Axpeko zelaiak gertu daude eguna hartzeko; eguraldiak laguntzea baino ez da falta. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako bederatzi bikote lehiatuko dira; tartean, eskualdeko ordezkari bi: Jose Miguel Etxebarría *Xoli* txakurragaz, eta iazko txapelkun Carlos Ardanza *Mendi* txakurragaz. Proba 17:00etan hasiko da.

Aurtengoa txapelketaren 59. edizioa izango da eta, guztira,

hamar txakurrek parte hartuko dute. Iazko txapeldun Ardanzak eta *Mendik* osaturiko bikoteaz gainera, herrialdeko txapelketetako txakurrik onenak lehiatuko dira Axpeko landetan. Zallatik Imanol Diaz eta *Loli* etorriko dira, eta Galdamestik Jose Mari Fernandez eta *Zuri*; Gipuzkoa Ataungo Aitor Tatok eta *Fidel* eta *Sua* txakurrek ordezkatzeko dute. Arabatik Carlos Mendibil eta *Lur* (Oiardo) eta Oihan Basterra eta *Lau* (Goiuri) datoz. Azken parte hartzaile biak Nafarroatik helduko dira: Etxarri Aranatzetik Jesús Razkin eta *Mendi*, eta Oronoztik Jorge Oteiza eta *Lagun*.

40€ urtean

EGIN
ASTE
B
mal



EGIN ANBOTOKIDE
eta irabazi
ASTEBURU BEREZI
BAT ERRIOXAN
mahasti artean





Iazko mendi martxako parte hartzaileak, anoa postu batean. ZALDAI MENDI TALDEA

Gaitasun guztietara egokitutako hiru ibilbide Iurretako mendi martxan

Zaldai mendi taldeak irailaren 26rako antolatu ditu martxak. 24, 14 eta 4 kilometroko martxak prestatu dituzte

Ekaitz Herrera IURRETA

Mendizaleek egutegian gorriz markatzeko moduan daukate irailaren 26a. Iurretako Zaldai mendi taldeak egun horretan egingo du urteroko mendi mar-txa, herrikoia, jendetsua. Eta, horretarako, hiru ibilbide ipini ditu aukeran, gaitasun eta adin guztietarako: luzea, 24 kilome-trokoa eta Aramotzeko mendi-lerroa zeharkatuko duena; la-burra, 14 kilometrokoa eta Mu-garraren azpialdetik pasatuko dena; eta Txiki Martxa, 4 kilo-metrokoa, Garaizartik eta Be-

reziganetik igaroko dena. Umeen-tzat azken hori izango da ibil-biderik aproposena. Era berean, ibilbide laburra (14 kilometrokoa) beste hiru kilometro luzatu gura duenak badu horretarako auke-ra, martxari Katatzka, Mugarri-kolanda eta Marmol gehituta. Parte hartzaileek gosaria eta martxa ondorengo luntxa izan-goto dute, besteak beste.

Ibilbide luzean eta laburrean izena ematen dutenak 08:30ean irtengo dira Iurretako plazatik. Txiki martxako parte hartzaileak 10:30ean abiatuko dira, leku

beretik. Inskripzioak egiteko epea zabalik dago (zaldai.eus), eta egunean bertan ere eman ahal izango da izena.

Mendi taldeak prezio batzuk zehaztu ditu izen emateetarako. Inskripzioa irailaren 24ra bitar-tean egiten dutenek 15 euro ordaindu beharko dute, ibilbide laburra zein luzea egin. Txiki martxan, haurrek 6 euro ordain-duko dute, eta nagusiek 10. Egu-nean bertan izena ematen dute-nek 20 euro ordaindu beharko dute, martxa luzeari zein labur-rari dagokionez. Txiki martxan, haurrek 8 euro ordainduko dute, eta nagusiek 12.

Zaldai mendi taldearen martxa tradizio handiko hitzordu bihur-tu da Iurretan. Egitasmoak 15 edizioko bidea bete du, eta aur-ten ere sanmigelen atariko legez egingo dute, herriko jaiei begi-ra motorrak berotzeko.



Otxandiarrek iaz egindako Basabisitaren irudi bat. OTXANDIOKO UDALA

Usadioari eutsiz, otxandiarrek Basabisita egingo dute domekan

A.B. OTXANDIO

500 urte baino gehiagoan man-tendu den usadioari hutsik egin barik, domeka honetan otxan-diarrek Basabisita egingo dute Otxandioren eta Aramaioko Oleta auzoaren artean dagoen Limitadura. Plaza Nagusian ipini dute ordua, 08:00etan.

Urtero iraileko hirugarren domekan elkartzen dira Basa-bisita egiteko. Atabalaren errit-moak lagunduta, otxandiarrek Limitaduko mugarren egoera aztertzen dute eta ondoko arbo-letan markak egiten dituzte, herriko mugak zehazteko. On-doren, udal idazkariak akta jasotzen du Oletan. Herriko agintariek ez ezik, bertaratuta-

ko herritarrek ere badute akta sinatzeko aukera. Udalak bakai-laoa eta ardoa banatzen du ber-taratutakoen artean.

Gatazka historikoa

XV. mendetik gaurdaino heldu den gatazka historikoa da Limi-tadukoa. Udalerrri bien artean dagoen 565 hektareako lursailak hainbat ika-mika sortu du men-derik mende, eta, eztabaida bere testuinguru historikoan ipintze-ko, Otxandioko Udalak ikerketa historikoa eskatu zuen. 2018tik 2020ra bitartean, diziplinarteko ikerlan sakona egin zuten, Belen Bengoetxea arkeologo eta EHU-ko irakasle durangarrak zuzen-duta.

Iurretan, Gaztetxea berriro zabaldu zeneko 5. urteurrena

A.B. IURRETA

Iurretako Gaztetxeak berriro ateak zabaldu zituela bost urte beteko dira asteburuan. Bada, urteurren borobila ospatzeko, ekitaldi sorta antolatu dute za-paturako. Kelebetuek musika ipintzen arituko dira, 18:00etan hasita. Ondoren, 19:00etan, fa-milia argazkia ateratzeko ordua ipini dute.

Gaztetxearen ibilbidea ospa-tzeko antolatu dituzten kontzer-tuak 22:00etan hasiko dira, Gaz-te Asanbladako kideek jakina-razi dutenez. Lau musika talde igoko dira oholtzara: Aihotz, Nehor, Barrrrk eta Reketabe. Jai giroak goizeko ordu txikiak hel-du bitartean iraungo du.

Enpresa proiektuen 18. lehiaketara deitu dute Iurretan

E.H. IURRETA

Udalak enpresa proiektuen lehiaketa ipini du martxan. Ekimenak 18. aldia du aurten eta herrigunean "espíritu ekin-tzailea bultzatu, enplegua sortu eta tokiko merkataritza bizibe-rritzea" du helburu. Eskerak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

Lehiaketa pertsona fisikoei zein enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzenduta dago, baldin eta euren proiektua herrigunean kokatzea aurreikusten badute. Proiektu irabazleak 6.000 euro jasoko ditu. Gehienez 6 hileko epean hasi beharko du jardue-ra, eta gutxienez urtebetez egon beharko da zabalik.

Garain prest daude Santa Katalinako jaiak ospatzeko

E.H. GARAI

Garain prest daude iraileko hitzordu kutun bat ospatzeko. Asteburu honetan, herritarrek Santa Katalina ermitaren buel-tan batuko dira, baselizako jaiak girorik herrikoienagaz ospatze-ko. Zapatuan Donien Atxa al-txatuko dute. 20:00etarako ipini dute hitzordua. Eta biharamu-nean, domekan, Santa Katalina-ren omenezko meza izango dute, 11:00etan. Meza amaitutakoan, herriko dantzarien saioa izango dute, eta ospakizunak behar den moduan borobiltzeko, kopaua egingo dute.



Euskara eroso ikasi eta bizitzeko



Durangaldeko AEK

EUSKARA-IKASTAROAK

IKASI EUSKARA GUREKIN

Maila guztiak (A1, A2, B1, B2, C1, C2)

Online edo aurrez aurre

Informazio gehiago: Durangaldeko AEK euskaltegiak

Durango, Santanoste 4, behea · 607 159 205 · abararak@aek.eus

Elorrio, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zornotza@aek.eus

Berriz / Zaldibar / Iurreta / Izurtza / Mañaria / Abadiño / Atxondo
662 966 827 · durangaldekoaek@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABEren eta UDALen dirulaguntzak

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE


IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen
eskutik Euskal
produktuz
osatutako otzara.



**BASA take
away** jatetxeko
KMO haragidun
eta ogi artisaudun
hanburgesa eta bi
salsadun patata
erraztoa opari. Bariku
eta zapatu gauean
gozatzeko.



**Xiberu
taberna** (Zornotza)
bi gosari bikoitz.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2 litroko
2 tarrina. (Durango)

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



34 establezimenduk parte hartuko dute Abadiñoko Erosketa Bonuen kanpaina

Bonuak irailaren 21ean ipiniko dituzte eskuragarri Abadiñoko Udalaren bulegoetan

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Irailaren 21etik urriaren 21era bitartean, Abadiñoko Udalak Abadiñoko Merkataritza Elkartea-gaz elkarlanean garatu duen Erosketa Bonuen kanpaina ipiniko du martxan. Denera, udalak 50.000 euroko inbertsioa egin du, herritarrek Abadiñoko 34 establezimendutan gastatzeko. "Tokiko merkataritzari laguntzen jarraitu gura dugu, gure udalerriko funtsezko zati bat direlako. Kanpaina honen bitartez, herrian bertan kontsumitzea bultzatu gura dugu, eta, aldi berean, onurarik gehien behar dutenengana heldu", adierazi du Abadiñoko Udalak.

Tokiko merkataritzari laguntzeko helburuaz gainera, kanpainak dimentsio soziala ere badu, 10.000 bonuen banaketa herritarren egoera ekonomikoa eta adina kontuan hartuta egin-

go da eta. Langabeek eta urtean 16.000 eurotik beherako pentsioa duten pentsiodunek 12na bonu eskuratu ahal izango dituzte, 65 urtetik gorakoek 4na bonu jaso ahal izango dituzte, eta 18tik 64 urtera artekoek 2na

bonu. Kalteberatasun sozial edo ekonomikoko salbuespenezko egoeretarako, 200 bonu erreserbatuko dituzte. Bonuak irailaren 21etik aurrera eskuratu ahal izango dira, agortu arte, udal bulegoetan.



Politikari eta merkataria kanpainaren aurkezpenan.

Zapatuan Bolondres Eguna ospatuko dute Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Bolondres Eguna ospatuko du zapatu hone-tan, irailak 19, herriko boluntarioen lana eskertzeko asmoz. Ekimena 19:00etan izango da, Traña-Matienako Pino plazan.

Udalak azaldu duenez, Abadiñon 50 elkarte baino gehiago daude eta ehunka lagunek modu boluntarioan parte hartzen dute. "Euren lanari eskerrak, udalerrian jarduera eta proposamen eskaintza zabala eta askorarik egoten da urte osoan zehar. Gainera, euren parte hartzeak lankidetzat, nortasuna, aniztasuna, komunitate sentimendua eta halako balioak islatzen ditu", esan du Abadiñoko Udalak.

Hori horrela, Abadiñoko Udalak bere esker ona helarazi gura die boluntarioei, eta, aitorza hori egiteko, Bolondres Eguna antolatu du, "modu desinteresatuan Abadiñori bizia ematen dioten pertsona hauek merezi dutelako".

Frontenis Txapelketako finalak eta Arietzura irteera asteburuan Mallabian

M.Z. ABADIÑO

Domekan, irailak 20, Mallabiko Frontenis Txapelketako finalak jokatu dira eskolako frontoian, 09:30ean. Lehenengo jardunaldi biak jokatu eta gero, zortzi jokalarik hauek sailkatu dira finalera: Aldoni Aldape, Mikel Sanchez, Xabier Lezeta, Mikel Rodriguez, Markel Bravo, Urko Hernandez, Ander Elorriaga eta Jon Gandiaga.

Arietzura mendi irteera

Aurreko egunean, irailaren 19an, irteera egingo dute Arietzura, Mallabiko Mendizaleak taldeak antolatuta. Irteera Elizalde plazan izango da, 09:00etan. Bederatzi kilometroko ibilbidea da, 329 metroko desnibel positiboa duena. Antolatzaileen esanetan, ibilbideak ez du ia zailtasunik eta hiru bat orduan egiteko modukoa da.



Frontenis txapelketako argazki bat.

Haize-Arrosak "sorpresaz" beteriko emanaldia egingo du Damarena jaialdian

Autobusak etengabeko joan-etorriak egingo ditu herrigunetik Angurretara

Joseba Derteano MAÑARIA

Damarena jaialdiaren lehenengo edizioa egingo dute domekan Mañariko Angurreta espazioan. Urkiola Landa Garapenak (ULG) antolatuta, ekimenak musika, artea eta bertako produktuak uztartuko ditu. "Damarena lurraldeari begiratzeko beste modu bat da. Gure helburua Durangaldeak eskaintzen dituen baliabideak, espazioak, produktuak eta kultura bisitariei erakustea da", azaldu zuen ekimenaren aurkezpenean Erramun Osak, ULGko presidentek. Jaialdiaren barruan, Haize-Arrosa talde berriztarrak 19:00etan hartuko du Angurretako agertokia. Taldeko kideek aurreratu dute gunea beterik egongo dela. EITBk kontzertua grabatuko du. Jaialdira bertaratzen direnek bertako produktuak dastatzeko aukera izango

dute. Damarena jaialdirako sarrera doakoa da.

Autobusak bertaratzeko

Bertaratzea errazagoa izan dadin, arratsaldean doako autobus zerbitzua egongo da Mañariko pla-

zatik Angurretaraino. Autobusak etengabeko joan-etorriak egingo ditu 18:30ean hasita, eta Angurretatik herrigunerako azken zerbitzua 21:30ean izango da, antolatzaileek aurkezpenean jakinarazi zutenaz.



Urkiola Landa Garapenako, Haize-Arrosako eta Angurretako kideak aurkezpenean.

Izurtzako Gertufest artearen, jai giroaren eta kulturaren bilgune izan da



Gertufest jaialdiak askotariko ikuskizunak batu ditu aurten ere. GERTUFEST

J.D. IZURTZA

Izurtzako jaien barruan ospatu den Gertufest jaialdiak artearen, jai giroaren eta kulturaren bilgune bihurtzea lortu du aurten ere. Antolatzaileak "oso pozik" daude aurtengo aldiagaz, jende gutxiren artean halako jaialdi bat antolatzea "neketsua" dela onartu duten arren. Santo Tomas parkean hainbat jatorritako artistak eta ikuskizunak batu dira, eta jaialdia "bizikidetzaren isla" dela nabarmendu dute antolatzaileek, eta horixe dela urtero bilatzen dutena.

'Rastrotik Elorrixora' erakusketa zabaldu dute Elorrioko kultur etxean

J.D. ELORRIO

Rastrotik Elorrixora erakusketa ikusgai dago Iturri Kultur Etxean urriaren 2ra arte. Daniel Asuak eta Hibi Agorriak orain urte batzuk Madrilgo merkatu batean aurkitutako argazkiak dira, 1954tik 1956ra

bitartean ateratakoak. "Argazkien artean, neska baten irudia nabarmentzen da; haren aurpegia anonimoa izan da hamarkadetan, eta haren istorioa berreraikitze bilaketa hasi zuten", esan du udalak ohar batean.



Erakusketa urriaren 2ra arte egongo da ikusgai.

Elorrioko Berdintasun Sailak udazkeneko programa zabala abiatu du

J.D. ELORRIO

Elorrioko Udaleko Berdintasun Sailak 2026ko udazkeneko ikastaro eta ekimenen egitaraua aurkeztu du. "Eskaintza honen helburu nagusia emakumeen ahalduztze pertsonal zein kolektiboa bultzatzea eta genero berdintasunaren inguruko hausnarketa sakontzea da", azaldu du udalak ohar batean. Horretarako, hainbat arlo uztartzen duten lantegiak antolatu dituzte: *Eskutitzen inbentarioa* literatura-lantegia, sendabelarrak ezagutzeko saioak, zoru pelbikoa sendotzeko eta ezagutzeko ikastaro multidiziplinarra, eta barrea eta komikotasuna bultzatzeko saioak. Horrez gainera, emaku-

me migratuei zuzenduriko *Zatoz Gurekin* hizkuntza eta ahalduztze programak eta Emakumeentzako Sostengu Taldeak ere jarraipena izango dute.

Kultura eta memoria historia ere presente egongo dira udazkeneko programazioan. Urriaren 17an, Berriozabaletako iturrian, *Memorias líquidas* ikuskizuna egingo dute, urkorrontea etxeetara heldu aurretik garbitokietan eta iturrietan emakumeek egiten zituzten zaintza-lanak eta sortzen zituzten sororitate-espazioak omentzeko. Bestalde, gizon-taldeak elkartzen jarraituko du, gizonen artean maskulinitate eredu berriaz eta zaintzaz hausnartzeko.

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

IRAILA

24 OSTEGUNA
Antzerkia: ALONSO, EZINEZKO MANDATUE MEZULARIA ETA GALDUTAKO GUTUNA
17:30 Udaletxeko lorategian

26 LARUNGATIA
Kontzertua: EKIZA - Argitzola
19:30 San Migel Errmita

28 ASTELEHENA
Erakusketa: emakumeak zientzian
Urriaren 14ra arte

BINGO
tombola
intergenerazionala
txokolatada

URRIAK 1

ASKOADO

18:00

lurreta

SENTITU KONEKTATU OSPATU

Biodantza ATE IREKIAK

Doako saloa
Elorrioren irailak 22an, 18:30ean

Erreserba egin:
626 661 292
Mentxu Arjonilla

ANBOTOkide egiten direnen artean mahasti artean asteburu berezi bat bizitzeko aukera

J.G DURANGALDEA

ANBOTOk 25 urte egingo ditu azaroaren 9an, mende laurden euskarazko kazetaritza Durangaldeko komunitatean zabal-tzen, sinergiak sortzen. Ibilbi-de honetan, Anbotokideen laguntza ezinbestekoa izan da. Hartara, urtean 40 euroren truke, proiektua babestear

gainera hainbat hobari jaso eta lehiaketetan parte hartze-ko aukera dago. Hau une ezin aproposagoa da Anbotokide egiteko. Martxan ipinitako kanpaina berrian, Errioxan lagun birentzako asteburupa-sa bat zotz egingo dugu, mahasti artean gozatzeko. Egin zaitez Anbotokide!



DURANGALDEA ASTEON

Garaiko Dantza Taldea, Udaberri eta Anton Mari Aldekoa-Otalora omenduko dituzte

DURANGALDEA Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak eta Deia egunkariak *Dantza Tradizionalaren Esker Onak* ekitaldia egingo du irailaren 24an, 19:00etan, Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, Garaiko Dantza Taldea, Zornotzako Udaberri eta Anton Mari Aldekoa-Otalora omenduko dituzte.

Zaldibarko Udalak gezurtatu egin du 19 etxebizitza babestu egingo direla

ZALDIBAR Orain aste batzuk, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak iragarri zuen 19 etxebizitza babestu egingo zirela Zaldibarren, baita beste herri batzuetan ere. Alabaina, Zaldibarko Udalak ohar baten bitartez argitu du informazio hori ez dela zuzena, eta gaur gaurkoz ez dagoela halako proiekturik indarrean udalerrarentzat.

Aita Kurutzeko eguna ospatuko dute irailaren 20an Mañarian

MAÑARIA Domekan, irailak 20, Aita Kurutzeko eguna ospatuko dute Mañarian. Tradizioari eutsiz, meza izango dute, 11:00etan. Gero, jai egunak aurrera jarraituko du. Mañariko dantzariak saioa egingo dute, eta bertaratzen direnek luntxa izango dute.

Astelehen goizean amaituko da Udako Argazki Lehiaketako bozketa fasea

DURANGALDEA ANBOTOk antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa azken fasean dago eta astelehen goizera arte egongo da botoa emateko aukera. Oraindino zure argazkirik gustukoena aukeratu ez baduzu, sartu www.anboto.org-en eta eman botoa.



GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Egun on, Durango



IMA GARRASTATXU
EH BILDU

Hasi dugu ikasturte berria. Batzok behintzat izan dugu oporrez gozatzeko aukera uda honetan, ez da gutxi. Baina iritsi da iraila eta itzuli gara nor bere eguneroko zereginetara.

Gogotsu hasi dut ikasturtea, espero baino ilusio eta indar handiagoarekin. Udak lasaitasuna ematen du, deskonektatzeko aukera, eta baita gauzak tentsio gutxiagorekin eta distantziatik ikusteko parada ere. Beste patxada bat. Niri ere hori eman dit udak: lasaitasuna, distantzia eta patxada. Udako bake hori izango da agian iraila gogotsu hastearren arrazoia, izan ere, gogaitu samar bukatu bainuen joan den kurtsoa. Egia esan, politikan gehiegitan dagoen giro zakarrak nekatu egiten nau eta iazko ikasturteak ere izan zuen zakarretik eta zatarretik.

Hauteskunde giroan igaroko dugu ikasturte hau eta zarata eta deskalifikaziorako etengabe-ko tentazioa izango dugu guztiok. Baina honen aurrean zer egin da kontua. Eskua luzatu nahi dizuet, tentazio horri muzin egin eta elkarlanean herri hau erakitzeke prest zaudeten eragile eta herritar guztiei. Espainiatik datozkigun haize bortitza eta politika egiteko modu erasokorra alde batera utz ditzagun. Euskal Herrian posible da gauzak beste era batera egitea, eta baita Durangon ere. Badatorren Durango denona egin dezagun.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Defie Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



ABADIÑO



ATXONDO



BERRIZ



DURANGO



ELORRIO



GARAI



IURRETA



IZURTZA



MALLABIA



MAÑARIA



OTXANDIO



ZALDIBAR



ZORNOTZA

Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



BURUARI KLIK!

MARGOZTU ZENBAKIAK JARRAITUZ



KIMU KUKUKA




ZENBATU

Irudi bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



LABIRINTOA

Lagundu olagarroari sekuentziari jarraituta



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?



DANTZA

"Ez da erraza hamahiru urte baino gehiagoz konpainia independente bati eustea"

JUDITH ARGOMANIZ JIMÉNEZ LASALAKO ZUZENDARIA, KOREOGRAFOA ETA DANTZARIA

Domekan Lasala konpainiaren 'Alai familian' azken lanagaz gozatzeko aukera egongo da Durangon; dantzagaz, familia eredu desberdinak erakutsiko dituzte



Judith Argomaniz. RENATA ETANOWSKI

Aritz Maldonado DURANGO

Judith Argomanizek (Donostia, 1983) Lasala dantza konpainia martxan ipini zuen 2013an, Jaiotz Osa kideagaz batera. Ordutik, hainbat lan kateatu dute bata bestearen atzetik. Azkena, urte hasieran estreinatu zutena: *Alai familian*. Urtea amaitu aurretik, birritan taularatuko dute Durangaldean; lehenengoa, domekan, Durangon. San Agustin kulturgunean egingo dute emanaldia, 18:00etan. Argomaniz Lasala konpainiako zuzendaria eta koreografoa da, eta baita obra honen sortzailea ere. Garazi Etxaburugaz, Hodei Arrastoagaz, Miren Lizeagaz eta Leire Otamendigaz batera sortu du obra. Publiko guztiarentzako moduko lana da, eta familia mota desberdinak lantzen dituzte obran. Alai protagonista, sei urteko haurra, bere amonagaz

eta txakurragaz bizi da. Alairen familia ez da bere lagunaren modukoa eta horrek desberdin sentiarazten du, baina gau batean ametsen munduan murgildu eta animalia mordo bat eta haien familia mota desberdinak eza-

"Urtarrilean estreinatu genuenetik, erantzun beroa izan dugu"

"Ez da sektore erraza, baina guk lanean jarraitzen dugu publiko berria bilatzen"

gutuko ditu. "Ez dugu familia eredu bakar bat erakutsi nahi, baizik eta haurrei erakutsi familia bakoitza desberdina izan daitekeela eta hori aberasgarria dela", azaldu du zuzendariak. Lana Berrizen ere taularatuko dute, abenduan.

Zelakoa da familia normal bat?

Gaur egun gero eta familia eredu gehiago dago, eta guretzat familia normal bat maitasunean, zaintzan eta errespetuan oinarritzen dena da. Ez dugu familia eredu bakar bat erakutsi nahi izan, baizik eta haurrei erakutsi familia bakoitza desberdina izan daitekeela eta hori aberasgarria dela. Hortik sortu zen *Alai familian* sortzeko beharrazana.

Urte hasieran estreinatu zenuten obra. Zelako harrera izan du 'Alai familian' lanak?

Oso pozik gaude jasotako harre- rarekin. Urtarrilean estreinatu

genuenetik, oso erantzun beroa izan dugu, bai haurren aldetik, eta baita familien, programa- tzaileen eta kultur eragileen aldetik ere. Oso lan berezia da guretzat, eta pozgarria da ikus- tea publikoak proposamenarekin konektatzen duela.

Idea eta koreografia zureak dira, baina lan honetan ez duzu dantza egingo emanaldietan. Zein irizpi- deren arabera erabakitzen duzu interprete legez aritu ala ez?

2017tik ez naiz eszenatokira igo. Salbuespen bakarra *Lasala 10 urte* piezaren estreinaldian izan zen. Konpainiaren hamar urte- ko ibilbidea ospatzeko sortu genuen pieza berezia izan zen, eta egun horretan bakarrik igo nintzen eszenara. Ondoren, piezak bere ibilbidea egin zuen nire presentziarik gabe.

Denborarekin konturatu naiz konpainiak hobeto funtziona- tzen duela ni zuzendaritzan eta sorkuntza prozesuaren gidari- tzan nagoenean. Nire lana gaur egun askoz zabalagoa da: ko- reografia, zuzendaritza artis- tikoa, taldearen koordinazioa eta proiektuaren ikuspegi oro- korra zaintzea. Horregatik, gaur egun naturaltasunez bizi dut oholtzan ez egotea, eta nire ekarpenik handiena kanpotik egiten dudala sentitzen dut.

Dozena bat emanaldi eskainiko duzue urtea amaitu bitartean. Mo- mentu gozoa da dantza garaikidea- rentzat?

Ez da sektore erraza, eta orain- dik ere erronka handiak ditugu, batez ere egonkortasunari, fi- nantzaketari eta programazio aukerei dagokienez. Konpainia askok zailtasun handiak dituz- te beren jardunari eusteko, eta, askotan, duena baino presentzia handiagoa merezi du dantzak programazioetan.

Hala ere, guk lanean jarraitzen dugu publiko berria bilatzen eta dantzaren inguruko aurreiritzi batzuk apurtzen saiatzen. Ho- rrelako proposamenek, familiei zuzendutako *Alai familian* be- zalakoek, bide berriak ireki ditzakete eta dantzara gerturatzan ez den jendea ere erakartzeko aukera eman dezakete.

Beraz, ez nuke esango mo- mentu bereziki gozoa denik, baina sortzaile askok lanean jarraitzen dugu dantzak ikus- garritasun eta aitortza handia- goa izan dezan.

Eszenografiari, jantziei eta irudite- giari, orokorrean, garrantzi handia ematen diozue.

Bai, gure hizkuntza artistikoa- ren parte da. Guretzat mugi- mendua da ardatza, baina mu- gimendu hori inguratzen duten elementuek ere istorioa konta- tzen dute. Moda, argiztapena, espazioa eta jantziak ez dira apaingarriak; piezaren uniber- soa eraikitzeko tresnak dira. **Lasala konpainiak ia hamabost ur- teko ibilbidea du. Pribilegiatua sentitzen zara?**

Bai, neurri batean bai, baina, batez ere, eskertuta sentitzen naiz. Gaur egun hamahiru urte baino gehiago daramatzagu la- nean, eta ez da erraza hainbes- te urtez konpainia independen- te bati eustea. Horren atzean lan handia dago, ahalegin han- dia, eta talde oso baten konpro- misoa.

Horregatik, sortzen jarraitu ahal izatea zorte handia dela sentitzen dut, gure lanak publi- koarekin konektatzea eta Euskal Herrian zein nazioartean gure bidea egiten jarraitzea. Baina pribilegio bat baino gehiago, urte askotako lanaren emaitza dela esango nuke.

Aurrera begira, baduzu erronkarik esku artean edo egitea bereziki gustatuko litzaizukeen zeozer?

Beti daude erronka berriak. Une honetan gure hurrengo sorkuntzan murgilduta gaude, *Alma Bruta* izeneko lanean. Maitasunaren inguruan erai- kitako pieza da, bizitzako etapa ezberdinetatik eta harreman mota ezberdinetatik jorratuta- koa. Horixe da orain dugun erronka nagusia.

Eta, oro har, Lasalak nazioartean hazten jarraitzea gustatuko litzai- dake, publiko berriarengana iristea, eta dantzaren bidez isto- rio berriak kontatzen jarraitzea. **Zer da garrantzitsuagoa, emozioa ala teknika?**

Niretzat biak dira beharrezkoak. Teknikak tresnak ematen diz- kizu, baina emoziorik gabe mugimendua hutsean gera dai- teke. Eta alderantziz ere bai: emozioa transmititu nahi ba- duzu, teknika sendo batek hori modu argi eta zehatzean adie- razten laguntzen dizu.

Hala ere, publikoaren ikuspe- gitik, azkenean emozioa geratzen dela esango nuke. Jendeak ez du beti mugimendu jakin bat edo zailtasun tekniko bat gogo- ratzen, baina bai ikuskizun batek sentiarazi diona. Horre- gatik, teknika ezinbestekoa bada ere, emozioa da benetan konek- tatzen gaituena.

MUSIKA

"Hainbat sasoitako musika biniloan islatu gura dugu"

ARITZ CÓRDOBA ETA BORJA MORONATTI KSKA-KO KIDEAK

KSKA kolektiboak egun osoko egitaraua prestatu du Durangaldeko Soinuak II bilduma aurkezteko



Córdoba eta Moronatti, aurkeztuko duten garagardoagaz eta diskoagaz.

A. M. ABADIÑO

Azken lau hamarkadetan Durangaldean ondu diren doinuak bilduma batean batzeko ideiaz jarraitzen dute KSKA kolektiboko lagunek. Zapatuan, bilduma horretako bigarren alea aurkeztuko dute, Abadiñoako Amaraun Arte Fabrikari, lagun eta sorpresa artean.

Bigarren bilduma honetan, zein taldek parte hartu dute?

Borja Moronatti: 47 taldek parte hartu dute oraingoan. Hauek dira eurretari batzuk: Non Demontre, Cuatro Clavos, Sermond's, Cleopatra Jones, Kilauea, The Kraven, SilikoSOS eta Fast Ladrillo.

Aritz Córdoba: Kronologikoki kaleratzen gabiltza bilduma, garai guztiak biniloan islatzeko asmoz. Lehenengoan, 80ko hamarkadatik 2000ko hamarka-

dara artekoak batu genituen; orain, hamarkada bat inguru batu dugu, datu hori guztiz zehatza ez den arren. 90eko amaierako talderen bat ere sartu dugu, aurrekoan ez zelako kabitua. Bilduma zenbait aletan ateratu dugu, disko bakarrean ezin zelako ateratu; ekonomikoki ere ez zen bideragarria.

Zapatuan aurkeztuko duzue, Amaraunen. Zelakoa izango da aurkezpena?

B. M.: Aurkezpena 12:00etan hasiko da. Diskoa aurkeztuko dugu lehenengo, eta, ondoren, Garaiko lagunekin prestatu dugun Märzen garagardo berezia. Gura duenak diskoa eta garagardoa erosteko aukera izango du. Ondoren, bazkaltzeko aukera egongo da: taloa.

A. C.: Txistorra, gazta eta txokolatea aukeratu ahal izango dira taloan, eta aukera beganoa ere egongo da, hummusa kipu-la erreagaz. 16:00etan, kontzertuak hasiko dira. Garai hartako lau taldek kontzertu laburrak emango dituzte, baina ez dugu esango zeintzuk diren taldeak, sorpresa da.

Hirugarren alea martxan duzue?

A. C.: Azken hamarkadako taldeekin gabiltza hirugarren diskoa osatzen. Beste disko hirukoitz bat izango da, eta oraingoan ere Anartz Arangueak egingo du diseinua. Musikari dagokionez, punk eta oi taldeak egongo dira, baina baita hip hopa, erromeria eta doinu *patxangero*ak ere.



Artxiboko irudi bat. DURANGOKO AZOKA

DURANGOKO AZOKA

Sormen Bekara proposamenak aurkezteko epea, azken txanpan

A. M. DURANGO

Domekan amaituko da Durangoko Azokaren Sormen bekaren deialdi berrira proposamenak aurkezteko epea. Bederatzigarren deialdian, Gerediaga Elkarteak eta Durangoko Udalak musika proiektuetara bideratu dute deialdia. Elkarren eskutik ipini zuten martxan egitasmoa, 2018an, euskarazko ekoizpena eta sortzaile berrien lana indartzeko asmoz. 2025eko deialdian, Usue Egia eta Ainhoa Olaso durangarrek Mikel Urdangarínegaz batera aurkezturiko *Gizabere-txoak*, *Joxe Azurmendiren joanak* eta *etorriak* komiki lana aurkeztu zuen epaimahaiak. Aurten-

go Durangoko Azokan aurkeztuko dute emaitza.

Sormen Bekaren deialdi berrian ere, parte hartzaileek banaka zein taldeka parte hartu dezakete. Lanak jatorrizkoa izan behar du, eta berbak hartzen baditu, euskara hutsezkoa izan behar du. Sortzaileek irailaren 21era arteko epea dute euren proposamenak gerediaga@durangokoazoka.eus helbidera bidaltzeko. Durangoko Azokan esango dute 15.000 euroko saria nork jasoko duen. Ondoren, sormen lan horren emaitza 2027ko Durangoko Azokan aurkeztuko dute jendarraren.

GAI LIBREAN



MIREN ERDOIZA MUJIKA
BEHARGINA

Arriskua

Gaixorik zaude. Hogeita hamar urte beteta, zure herriko kaleetan barrena pasean zabilta. Broteak dituzu. Polizia atzetik daukazu. Beldurtuta zaude. Arriskuan.

Defendatzeko beharra sentitu duzu. Ez dira joan. Badatoz. Zuk ez duzu beraiek etortzerik nahi. Baina ez dira joan. Hor jarraitzen dute, zure bizkarrean. Ez zara zu, beldurra jan zaitu. Edo bai, igual hori ere bazara. Berdin dio, egia esan. Arriskutsua zara eta arriskuan zaude.

Itxaron. Arriskutsua zara?

Hori dio poliziak. Hori dio poliziak zu akatu eta gero. Eskuak lotuta lurrera bota zaituzte. Ekainaren 22a da. Egurdiko hirurak. Berrogei graduetatik hurbil. Erre egiten duen asfaltoan zauzkate. Aurpegia lurraren kontra zantpatuta daukazu. Laguntza eskatzen ari zara. Ez dizute kasurik egiten. Arriskutsua zara eta arriskuan zaude.

Non dago arriskua? Zazpi agenterengan. Zazpi gizon, bakarraren aurka lurrean kolpatzen. Taser pistola batean. Lurrean botata daukatenari hankak zapaltzen dizkion funtzionarioarengan. Ikarak jota laguntza eskean dagoenari deskarga elektrikoak ematen dizkion uniformedunarengan.

"Bi egun eman dituzu ospitalean larri. Hil egin zara. Hil egin zaituzte. Nor da arriskutsua? Zein da animalia?"

Lurrean jarraitzen duzu eta anbulantzia ez dator. Bi egun eman dituzu ospitalean larri. Hil egin zara. Hil egin zaituzte.

Nor da arriskutsua? Zein da animalia?

Piztiaz josita gaude eta gure artean bizi dira. Armatura doazen poliziak, balkoietatik migratzaileei tiro egiten dieten faxistak. Beldurra sartu nahi digute arriskutsuak beraiek direnean.

Mehatxua da bokadillo bat edo janariz betetako karroa. Eskizofrenia daukan gaztea. Zaku berean daude migranteak eta gaixoak. Baztertuak, alboratuak, marginalak.

Hemen gaude, ordea. Santurtziko kaleetan, Egia auzoan. Ez gaituzue komisaria eta balkoi faxistetan aurkituko. Kaeen bai.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 18

- **DURANGO**
'Landabarrenako Lamia. Garai 1884- Mexiko Hiria 1970' Pilar Zubiaurren lanak. Arte eta Historia Museoa, abendura arte.
- **DURANGO Durango Open 2026** Rubik kuboan lehiaketa ofiziala Landako Gunean, irailaren 18tik 20ra bitartean.
- **DURANGO 'Beila'** Peru Magdalenak liburua aurkeztuko du. Hitz liburu dendan, 18:00etan.
- **ELORRIO 'Rastrotik Elorrixora'** 1954tik 1956ra artean ateratako argazki artxiboa (Daniel Asua eta Hibi Agorria). Iturri kultur etxean, urriaren 2ra arte.
- **ZALDIBAR Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña** Bertso saioa. Zaldia plazan, 19:00etan.
- **ZORNOTZA Ogenbarrenako jaiak** Txupinazoa, 18:00etan. Zumb@ + Dj Zirkin, 18:30ean. Tortilla txapelketarako izen ematea, 19:30ean (aurkezpena, 20:30ean). DJ Zirkin, 21:00etan. Ogenbarrenan.
- **ZORNOTZA 'Ekialdea'** Erakusketa, Pintzelak elkarteak antolatuta. Zelaieta zentroan, irailaren 26ra arte.

ZAPATUA 19

- **ABADIÑO 'Herriak erein herriak jaso'** Abadiño Bolondresen Eguna antolatu dute herriarren lan boluntarioari aitortza egiteko. Pino plazan (euria bada, eskolako aterpean), 19:00etan.
- **ABADIÑO Durangaldeko Soinuak II** Disko aurkezpena. Amaraun Arte Fabrika, 12:00etan.
- **ATXONDO 59. Euskal Herriko Ardi-txakur Txapelketa** Axpe auzoan, 17:00etan hasita,

- **DURANGO Skate eta bizikleta zirkuituak** Mugikortasun jasagarria bultzatzeko antolatutako jarduera. Zumalakarregi kalean eta Ezkurdin, 12:00etatik 15:00etara. Durangoko bizikleta-sarea ezagutzeko lau kilometroko irteera, 13:00etan. Bigarren eskuko bizikleten salmentarako gune bat ipiniko dute. Xakea, bizikleta-eskulanak eta bike-paint-a, Joxe Miel Barandiaran kalean.
- **IURRETA Ahari lurreta Bizikleta Martxa.** Askondotik irtenda, 08:30ean.
- **IURRETA Gaztetxearen V. Urteurrena** Musika jartzea (Kelebetuek), 18:00etan. Argazkia, 19:00etan. Kontzertua: Aihotz + Nehor + Barrk + Reketabe, 22:00etan. Gaztetxean.
- **MAÑARIA Angurretara bisita gidatua** Mañariarrentzako ekintza, dohainik aforoa bete arte (angurreta@gmail.com).
- **MALLABIA Butroeko Gazteluko hipikaria irteera** Udalak antolatuta. Petriletik, 15:45ean.
- **ZORNOTZA Joe Gonzalez eta Marta Cara** Kontzertua, Eleizatan egitarauaren barruan. Bernagoitiko San Migel elizan, 20:00etan.
- **ZORNOTZA Ogenbarrenako jaiak** Mahaia eta aulki jasotzea (baba-jana), 10:30ean. Puzgarriak, 11:00etan. Bertsolariak, 13:00etan. Trikitia, 13:30ean. Baba kazoalen aurkezpena, 14:00etan. Sari banaketa, 14:30ean. Apar jaiak, 16:00etan. Kontzertua: Steepers, 17:00etan. Mus txapelketa, 17:30ean (izen ematea 17:00etan, Lagunak tabernan). Aulki eta mahaien bilketa, 18:30ean. Kittu taldea, 19:00etan. Sugaar, 22:00etan. Ogenbarrenan.



BARSANTI KONPAINIA

MAÑARIA Antzerkia Durangaldeko Barsanti konpainiak *LJ75* antzezlanaren taularatu du gaur Mañarian. Inguratzen gaituzten populismoen arriskua ardatz duen komedia. Pako Revueltasek zuzendutakoa da. Juanjo Otero, Aritz Rodríguez, Pako Revueltas eta Asier Fragarars dira antzezleak. Plazan, irailaren 18an, 18:00etan.

DOMEKA 20

- **ATXONDO Suliko** Kontzertua. Arrazolako Tope tabernan, 13:00etan.
- **DURANGO 'Alai familian'** Dantza ikuskizuna Lasala konpainiaren eskutik. San Agustin kultur gunean, 18:00etan.
- **DURANGO Bizikleta Solidarioa** La Cuadri del Hospi elkarteak laguntzeko ikastetxeen artean antolatutako jarduera. Ezkurdin plazan, 10:30etan.
- **IURRETA Banakako harritulatzailen Bizkaiko txapelketa eta erakustaldia** HEKI elkarteak antolatutako jardunaldia. Askondin, 11:00etan.
- **MAÑARIA Damarena Jaialdia** Haize Arroza & Lagunak taldearen kontzertua. Hainbat gonbidatuek parte hartuko dute eta ETBk grabatuko du. Tokiko produktuen dastatzea egingo da eta doako autobusa egongo da herrigunetik abiatuta. Urkiola Landa Garapenak antolatuta. Angurreta Harrobia kultur espazioan, 19:00etan.
- **MAÑARIA Aitte Kurutzeko Eguna** Meza, 11:00etan. Ondoren, Andra Mari dantza taldearen saioa eta luntxa. Aitte Kurutzeko baselizan.

- **MALLABIA Barrikara piragua taldera irteera** Udalak antolatutako ekintza. Petriletik, 15:45ean.
- **OTXANDIO Basabisita** Otxandioko munarriak bisitatzeko ibilaldia. Plaza Nagusitik, 08:00etan.
- **ZORNOTZA Ogenbarrenako jaiak** Merkatu solidarioa (11:00-15:00). Dantza kubatarak, 12:00etan. Txoritxopotea (13:00-15:00). Ogenbarrenan.
- **ZORNOTZA Emakume Sortzaileen Azoka** Besue elkarteak antolatuta, Txiri Txiri plazan (11:00-14:30). Xuxurlariak abesbatzaren emanaldia, 12:00etan. Sorginkada batukada, 13:00etan.
- **ZORNOTZA AMCB** Kontzertua, Eleizatan egitarauaren barruan. Etxanoko Andra Marian, 19:00etan.

EGUENA 24

- **BERRIZ 'Alonso, ezinezko mandatuen mezularia eta galdutako gutuna'** Hortzmuga konpainiaren ikuskizuna (euria eginez gero, eskolako patioan). Udaletxeko lorategian, 17:00etan.

- **ZORNOTZA Sanmigelak** Txupinazoa, trikipintxopotea, 19:00etan. Zornotzako Zubiaur Musika Eskolaren emanaldia, 20:00etan. San Migel Dueda auzoan.

BARIKUA 25

- **ELORRIO '52 Ertz'** Antzerkia Ados konpainiaren eskutik. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **IURRETA Sanmigelak** Porrotx eta Marimotots *Zerua lapurtu dute* ikuskizunagaz plazan, 17:30ean (euria eginez gero, Maiztegiko frontoian). Bingo Musikala Etxegon, 18:30ean. Mus txapelketako finala, 20:00etan. Oihan Vega umeentzako diskofesta. Askondin, 20:00etan. Helduentzako diskofesta. Askondin, 21:00etan.
- **ZORNOTZA Sanmigelak** Gaztedi barria txarangaren animazioa, 20:00etan. Txapelketarako patata tortillen aurkezpena, 20:30ean. Mus txapelketa azkarra, 20:30ean (izen ematea bikoteko 30 euro, 20:00ak arte). Kittu taldea + Dj Edugarmar Music, 22:00etan. San Migel Dueda auzoan.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Tiempo de victoria
Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 19:15, 21:30.
Domeka 20: 19:30.
Astelehena 21: 18:00, 20:15.
Martitzena 22: 18:00, 20:15.
Eguaztena 23: 19:00.
En la zona gris
Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 19:15, 21:30.
Domeka 20: 19:30.
Astelehena 21: 18:00, 20:15.
Martitzena 22: 18:00, 20:15.
Eguaztena 23: 19:00.
Un plan perfecto
Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka 20: 17:00, 19:30.
Astelehena 21: 18:00, 20:15.
Martitzena 22: 18:00, 20:15.
Tadeo Jones y la lámpara maravillosa
Zapatua 19: 17:00.
Domeka 20: 17:00.
Mumbo Jumbo
Zapatua 19: 17:00.
Domeka 20: 17:00.
Nabucco (opera)
Eguaztena 23: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La Odisea
Zapatua 19: 20:00.
Domeka 20: 20:00.
Astelehena 21: 20:00.
Vaiana
Domeka 20: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Palestina 36
Barikua 18: 20:00.
Zapatua 19: 20:00.
Domeka 20: 20:00.
Astelehena 21: 20:15.
Tadeo Jones y la lámpara maravillosa
Zapatua 19: 17:00.
Domeka 20: 17:00.



FUTBOLA

Iker Unzueta, lau gol partidu bitan eta geroago eta ezagunagoa egiten dabilen ospakizuna

Hiru-lau urtetik hona egin duen keinu bereziagaz ospatu ditu golak

Joseba Derteano ABADIÑO

Iker Unzueta (Abadiño, 1998) Mirandes taldera batu da denboraldi honetan eta bikain hasi du abentura berria Lehen Federazio Mailan jokatzeko duen taldean. Abadiñarrak lau gol sartu ditu azken partidu bietan, bina norgehiagoka bakoitzean, eta gol bakoitzaren ondoren keinu bera egin du ospakizunean. Aurtengo udan ezkondu da eta bere emazteari eskainitako keinua da. Ospatzeko modu hori, ostera, ez da oraingoa. Orain hiru-lau urtetik egiten du Unzuetak, nahiz eta denboraldi hasiera honetan inoiz baino gehiagotan egiteko aukera izan duen.

Mirandesek galdu egin zuen ligako lehenengo partidua. Ondorengo biak irabazi egin ditu: 2-0 Ourense aurka, eta 3-4 Meridaren zelaian. Gaztela eta Leongo taldeak sarturiko sei goletatik lau Unzuetaenak dira. "Inoiz ere ez dut honelako hasierarik izan", adierazi du abadiñarrak. Gehien hurreratzeko zaion hasiera 2022/2023 denboraldikoa da, Logroñesen; orduan gol bi sartu zituen denboraldi hasierako partidu bitan.



Unzueta aurtengo gol bat ospatzen, egin ohi duen keinuarekin. MIRANDES

Gol baliotsuak

Gainera, Unzueta golak berebizikoak izan dira, taldeak hiru puntuak batzeko balio izan dutelako. Esaterako, Meridan, Unzueta lehenengo golak, lehenengo zatia hondarrean sartutakoak, partidua bina berdintzeko balio izan zuen. Eta bigarren gola partidua amaitzeaz zegoela sartu zuen, 93. minutuan, penaltiz. "Taldeari azken-azkenean garaipena eman zion gola sartzea itzela izan zen. Hiru puntuek asko esan gura dute taldearentzat", azaldu du Unzuetak. Bere esanetan, penaltia jaurtitzeko unean konfiantzaz zegoen, partidu ona egiten zebilelako. "Beti zaude apur bat nerbioso, baina baloia nahiko trankil hartu eta konfiantzagaz bota nuen", esan du.

"Gol baliotsuak izan dira denak, taldeak hiru puntuak batzeko balio izan dutelako"

"Sekulako taldea aurkitu dut, zelai barruan zein kanpoan. Oso hartu-eman ona dugu"

Taldean "gustura"

Unzuetak bigarren urtea du Lehenengo RFEF Mailan. Iazko denboraldia Lugon egin zuen eta 11 gol sartu zituen. Errendimendu on horrek eraman du Mirandesera. Unzuetak urtebete kontratua du Mirandesegaz eta beste urtebete luzatu daiteke. Mirandesen aurkitu duen giroagaz gustura dagoela esan du aurrelari abadiñarrak: "Sekulako taldea aurkitu dut, zelai barruan zein handik kanpora; oso hartu-eman ona dugu". Euskaldun asko dago taldean, euretariko bat Iker Pedernales, Durangon bizi den mungiarra.

Igoera helburu

Mirandesek helburu "argi" bat du aurtengo: "Bigarren Mailara igo gura dugu", esan du Unzuetak. Izan ere, azken hamarkada bietan Bigarren Mailan (Hypermotion Liga, gaur egun) egotera ohituta dagoen taldea da. 2013an maila horretara lehenengoz igo zenetik, hamabi denboraldi eman ditu bertan. Orain urte bi, gainera, Lehen Mailara igotzeko borrokan ari zuen. Baina iaz denboraldi eskasa egin eta maila galdu zuen. Iaz galdutakoa berreskuratzeke, talde proposa dutela uste du Unzuetak. "Taldea kalitatezko jokalariek daude. Gainera, orain arteko partiduetan taldeak nortasuna erakutsi du kontra jarritako markagailuari buelta emateko", zehaztu du jokalaria abadiñarrak.

ERRUGBIA

Nesken Txapela errugbi txapelketak zazpigarren aldiz beteko du zapatuan

Bost euskal talde eta Zaragozako bat lehiatuko dira. Lehenengo partiduak 14:30ean hasiko dira, Arripausuetan

J.D. DURANGO

Durango Rugby Taldeak antolatuta, Neskak Txapela txapelketak zazpigarren aldiz beteko du asteburuan. Zapatu honetan jokatu da txapelketa, Arripausueta zelaian, eta 14:30ean hasita 20:00 aldean amaituko da. Azken finalak 17:30 inguruan jokatu da.

Neskak Txapela neskek euren artean jokatzeko duten Euskal Herriko txapelketa bakarra dela nabarmendu zuten antolatzaileek ekimenaren aurkezpenean. Guztira, sei taldek parte hartuko

dute; Zaragozako batek eta bost euskal taldek: Durango Rugby Taldeak, Geureak, Bilbok, Gas-teizek eta Uribealdeak.

Eli Piedra DRTko kapitainarentzat, "ohore handia da zazpigarren edizioan parte hartzea". Horrelako txapelketak antolatzea "garrantzitsua" dela azpimarratu du, eta herritarrek Arripausuetara joatera gonbidatu ditu.

Bestalde, aurkezpenean azaldu zuten, Durango Rugby Taldeko nesken taldeak 30 jokalaria baino gehiago ditu aurtengoan, ondorioz, taldea bere kabuz lehiatuko da denboraldi honetan. Iaz, Uribealdeagaz batera atera



DRTk Durangon duen egoitzaren aurrean egindako aurkezpena.

eta, ondorioz, taldea bere kabuz lehiatuko da denboraldi honetan. Iaz, Uribealdeagaz batera atera

behar izan zuen taldea. Hazkunde horretan, "ateak zabaltzeko jardunaldiek eta ahoz

ahokoak" eragin handia izan dute, DRTko ordezkariek azaldu dutenez.



Angurretan aurkeztu zuten aurtengo aldia. Ondoren, solasaldia izan zen zenbait mendi korrikalarigaz. MAÑARITIK ATXETARA

MENDI LASTERKETAK

Mañaritik Atxetarak 800 parte hartzaile batuko ditu bere hirugarren aldian, zapatuan

Mendi martxa berria eta 13 kilometroko proba berria dira nobedade nagusiak

J.D. MAÑARIA

Mañaritik Atxetara mendi lasterketak hirugarren edizioa egingo du zapatuan, eta aurten 800 parte hartzaile baino gehiago bilduko ditu, lau lasterketak eta mendi martxa kontuan hartuta. Kafraga elkarteak antolatu du ekimena, Mañariko Udaren laguntzagaz.

Aurtengo edizioak hainbat berrikuntza izango du. Alde batetik, 13 kilometroko lasterketa berria antolatu dute. Proba Durangaldeko Koparen barruko lasterketa puntuagarria

izango da, Sugaar Koparako, hain zuzen ere, eta distantzia laburragoetan lehiatu gura duten korrikalariei zuzenduta dago.

Bestalde, mendi martxaren ibilbidea ere luzatu egin dute parte hartzaileen eskaerei erantzunez; 13 kilometrotik 19 kilometrora (1.150 metroko desnibel positiboa). Ibilbideak Atxarte, Asuntza eta Urkiolako beste hainbat gune esanguratsu zeharkatuko ditu, eta mendiaz lasaiago gozatzeko aukera eskainiko du.

22 kilometroko proba Durangaldeko Koparen barruan dagoen Mari Koparako puntuagarria izango da. Antolatzaileek aurreratu dute sailkapeneko lider biek parte hartuko dutela. Azkenik, 43 kilometroko proba ere egongo da, denetan gogorrena.

Parte hartzaileen hazkundera

Parte hartzaileen bilakaera nabarmena izan da azken hiru edizioetan. 2024an 370 parte hartzaile inguru izan ziren, iaz 530, eta aurten 800etik gora izango dira. Gainera, antolatzaileek

aurkezpenean nabarmendu zuten, emakumeen parte hartzeak ere "goranzko joera" izan du; aurtengo parte hartzaileen %23 dira emakumeak.

Egunak haurrentzako lasterketak ere izango ditu. 3tik 14 urtera bitarteko umeei zuzendutako probetan 60 bat haur daude dagoeneko izena emanda, iaz baino gehiago.

Antolatzaileek lasterketen egunean lanean arituko diren 130 boluntarioen lana eskertu zuten. "Egun hau ez litzateke posible izango boluntarioen lana barik", adierazi zuen Mañaritik Atxetarako Ekaitz Goenagak. Esaterako, aurten inoiz baino anoa postu gehiago egongo dela adierazi zuten: bost guztira.

Mañaritik Atxetara ez da lasterketa egunera mugatuko. Ekimenaren inguruan hainbat jarduera antolatu dute. Esaterako, gaur, irailak 18, Barsanti konpainiaren *LJ75* antzezlanak izango da plazan, 19:00etan. Aurretik, ekintza gehiago ere egin dute, hala nola goi mailako mendi korrikalariekin solasaldia eta Silvia Triguerosen *Tor* dokumentalaren emanaldia.

Argazkirik onenak, 'anboto.org'-n

ANBOTO Durangaldeko Koparen babeslea da eta gertuko jarraipena egingo die Mañaritik Atxetara probei. Asteburuan zehar, lasterketa guztietako argazkirik onenak egongo dira 'anboto.org' webgunean.

Asteburuko egitaraua

Irailak 18, barikua

- **17:00-19:00** Dortsalen banaketa
- **19:00** 'LJ75' antzerki emanaldia. Barsanti konpainia. Plazan.

Irailak 19, zapatua

- **08:00** 43K lasterketa hasiera.
- **08:15** Martxaren hasiera
- **09:00** 22K lasterketa hasiera.
- **09:15** Untzillaitz Zuzen hasiera.
- **09:30** 13K lasterketa hasiera.
- **13:00** 13K / 22K / UZ sari banaketa.
- **16:00** Umeen lasterketak (3-14 urte).
- **16:30** 43K sari banaketa.

Asteburuan zehar, lasterketa guztietako argazkirik onenak 'anboto.org' webgunean

JOKALDIA



AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN
TRINKETA

Bueltan

Amaitu dira oporrak, amaitzeaz da uda eta hasita dago jada ikasturte berrirako proposamen zein helburu berriei heltzeko gogo. Hasieran dena da presa, dena ondo egiteko nahia... zenbat iraungo ote du motibazio horrek? Sasoi arraroa izaten da/zen hau. Zen diot, pilotari garaia ekartzen didalako burura: entrenamenduen antolaketa, lan fisiko gogorreko garaia, motibazioa gainezka, helburuak...

Bada, orain, pilotari garaia albo batera utzita dut buruan egunotan. Kasu honetan, kiroleko beste esparru batetik, baina: antolatzaileen artean. Hasi da 2026/2027 denboraldia, eta, gure kasuan, Kepa Arroitauregi zeneren omenezkoarekin; ondoren, txapelketa probintzialak etorriko dira eta honek ez du etenik izango datorren urteko ekainera arte. Asteburuero izango dira partiduak Abadiñoko Tornosolo trinketeen; jokamolde, sexu eta adin guztiak pasatuko dira bertatik.

Bueltan izango dira ere Durangaldeko trinketlariak, bakoitza bere ibilbidearekin, bakoitza bere helburuekin, bere buru-hausteekin. Hala nola Asier Aspuru (denetan beteranoena), Jon Arana eta Iker Escamez abadiñarrak;

"Bueltan daukagu Munduko Pilota Txapelketa. Argentinan jokatuko da, urriaren 15etik 24ra"

Ibai Arroitauregi iurretarra, Gorka Otaduy berriztarra, Luken Atutxa garaitarra... Pixkanaka-pixkanaka bada ere, belaunaldi aldaketa gertatzen ari da hemen ere, nahiz eta orain hamarkada batzuk baino kantitate askoz ere urriagoa izan.

Amaitzeko, aipatu beharra daukagu ere aurten bueltan daukagula Munduko Pilota txapelketa; Argentinan jokatuko da, urriaren 15etik 24ra. Kasu honetan ez da buelta izango, debuta izango da Euskal Selekzioarentzat Munduko txapelketa ofizialean. Euskal ordezkaritzak ez du modalitate guztietan errepresentazioa izango, azken ziklo honetan ez baitu punturik lortu; hala ere, hau gutxienezkoa izango da, selekzioaren ibilbidea hasi besterik ez da egin eta.


Beraz, hastear den denboraldi berrian, trinketeen eta eskualdeko pilotariekin gozatzeko aukera izango dugu. Zorte on guztioi!

Zenbat
ezagutzen duzu
Durango?

Zorionak 😊

Alaine Marcos Larrañaga!

Otordu bat irabazi duzu
Gaztelua jatetxean



anboto

GUARDIAKO BOTIKAK	
IRAILAK 18, BARIKUA	
09:00-09:00	
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango	
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza	
IRAILAK 19, ZAPATUA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
IRAILAK 20, DOMEKA	
09:00-09:00	
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango	
09:00-22:00	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
22:00-09:00	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
IRAILAK 21, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Bazan, Uribarri 5 - Durango	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
IRAILAK 22, MARTITZENA	
09:00-09:00	
De Diego, Intxaurren 22. - Durango	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
IRAILAK 23, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
IRAILAK 24, EGUENA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.	
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak	

ZORION AGURRAK



Mari Nieves eta Edurne
Uztailetik Mari Nieves Zenitagoia iurretarra herenamona da. Zorionak, Mari Nieves! Zelako familia ederra daukazu. Eta ongi etorri, Edurne!



Lur
Zorionak, Lur! Mosu handi bat etxeko guztien partez, egun politte pasau eta ospatu. San Migeletan afaritxo bat eingo dogu!



Jon Areitio Pascual
Zorionak, txapeldun! Egun politte pasau eta izen zoriontsu! Jarraitu zure bide zuzenien eta ekin gogor, mutiko kozkortue!



Ibai
Zorionak Ibai, lehengusu nagusienari! Ederki ospatuko dugulakoan, ondo pasa 13. urtegun honetan! Muxu erraldoiak etxekoen partez!

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 401 400
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak Oier (1074.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko btxetela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.


UDAKO
ARGAZKI
LEHIAKETA

EMAN ZURE
BOTOA
IRAILAREN
21a BAINO
LEHEN



DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKI
BOZKATUENAREN SARIA
HARIRIK GABEKO
SONY ENTZUNGAILUAK

DURANGALDEKO
ARGAZKI
BOZKATUENAREN SARIA
XIAOMI
SMARTWATCH BAT





EMAN
ZURE
BOTOA



OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura
baduzu, deitu
688 731 402 zen-
bakira

ODONTOLOGIA
PSE:177/26

DURANGO
Clínica dental · Hartz klinika

ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulerria:
Asteleroetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13

ODONTOLOGIA OROKORRA ·
INPLANTOLOGIA · KIRURGIA ·
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA · ODONTOPEDIATRIA · PADI ·
HORTZETAKO ESTETIKA · HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13

• JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIKO
ERREFLEXUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIROL
IKUSMENA · GARUNEKO LESIOAK · UKIPEN LENTEAK
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 · 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PODOLOGIA
PSE: 245-26

OINEN ZAINTZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

NATUROPATIA
ETA HOMEOPATIA

Aurora Julià

HOMEOPATIA · NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak · Helduak · Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanpota Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Zapi bat



MARTA
CALVO LARRALDE

Askotan entzun dizkiot lagun musulman bati zapi bat eramatearen erabakiak ekarri dizkion komeriak.

Erabakia hartu aurretik barne borroka bat zuen. Bi talde sentitzen zituen sokatiran, eta bata edo bestea aukeratu beharrean ikusten zuen bere burua.

Hain agerikoa egin zitzaidan bere sufrimendua, ez niola irizirik eman, zama arinduko nuelakoan. Orduan, isiltasunak lagunduta, mamu batzuek bisitatu ninduten.

Tontakeria bat irudituko zai-zue, baina zapi batek ekarritzakeen aldaketa beldurgarriak etorri zitzaizkidan burura: pailua jarritz gero, pertsona bera izango ote da? Betiko umorea izango du? Konturatu gabe, hijabari nortasuna aldatzeko gaitasuna eman nion, superboterea.

Duela egun batzuk, mamu horien bisitaz hitz egin nion nire lagunari, eta, mesedez, testu hau irakurtzeko eskaria egin nion.

Zorrotz eta maitekor ekarpen batzuk egin zizkidan. Izan ere, bere erabakiaren gaineko milaka azalpen eskatu dizkiote eta oso nekatuta dago. Bere sufrimenduaren jatorria besteok izan ditzakegun jarrera baztertzaleetan dagoela esan eta oihaltati bat baino gehiago dela azpimarratu zuen, ezaugarri desberdinak dituen pertsona konplexua. Horiez gain, aldatzeko eskubidea duela esan zidan.

Etxeko lanak utzi zizkidan, nire inkontzientea aztertzen.

"Gurasoek ardoa maitatzen erakutsi ziguten; aita eredu eta maisu izan genuen"

ESTEBAN ETA NESTOR FERNANDEZ DE ARROIABE ALZAGA ARDO-HORNITZAILEAK

Aitziber Basauri IURRETA

Esteban Fernandez Arroiabek (Iurreta, 1962) eta Nestor anaiak (Iurreta, 1958) 40 urtetik gora eman dituzte ardo-hornitzaile legez lanean. Ekainean itxi zuten aitak 1960an sorturiko familia negozioa. Biak pozik daude, badagoelako nork jarraitu ardotegiagaz. Raul Fernandezek eta Ainara Moralesek hartu dute lekukoa, sasoi berriei egokituta. **Ardoagaz loturiko abizena da Fernandez Arroiabe Durangaldean.**

Nestor: Bai. Zaldiagaz eta guriagaz hasi zen aita ardoa banatzen, sasoi hartan. Gero, Vespaga batez eramaten zuen ardoa bezeroengana, atzean zeraman gurdian. Botilaratzeko makina 1984an ipini genuen. Ordura arte, eskuz lan egiten zen.

Esteban: Sanmiguelak hurbiltzen zirenean, hile eta erdi aurretik hasten ginen familia osoa botilak banan-banan garbitzen, milaka botila. Gurasoek ardoa maitatzen erakutsi ziguten; aita eredu eta maisu izan genuen.

Urteotan aldaketa asko izan da?

Esteban: 80ko hamarkadan aldaketa itzela gertatu zen, geroago eta taberna gehiago zabaltzen hasi ziren, eta txokoak ere bai. **Nestor:** Aitak taberna batzuetara ardoa zahagian eramaten zuen, ardo-garrafoiekin hasi baino lehenago; ahuntzaren narra sikatuta egiten ziren zahagiak, eta ardo-zahatoaren funtzioa betetzen zuten.

Ardoaren kultura eta kontsumo ohiturak ere asko aldatu dira.



Esteban eta Nestor Fernandez de Arroiabe.

Esteban: Guztiz. Lehen, etxe guztietan edaten zen ardoa. Baserrian eta basoan lan asko egiten zen, eta hamaiketakoagaz ardo apur bat hartzen zen. Leku askotara oinez eraman behar genuen, baserrietara askotan. Aitak Citroen txiki bat erosi zuen, baina aldats asko ezin zituen igo, bide asko egin barik zeudelako. 16 litroko ardo-garrafoia ere eramanda gaude, kilometro batera. Oso lan gogorra zen orduan. Tabernek lanean hasita, lana samurtu egin zen. Orain, gazteagoek unean-unean edaten

Motzean

Ardoa, nogaz?

N.F.: Lagunekin.

E.F.: Javier Gaudogaz.

Ardo munduan eredu izandakoa.

Ardoagaz hartzeko...

N.F.: Baserriko ogiagaz egindako tortilla pintxo.

E.F.: Urdaiazpikoa

baserriko ogiagaz.

Kalimotxoa egiteko...

Biak: Urteko ardo on bat.

dute ardoa, pintxo-potean, eta herriko jaietan kalimotxoan. **Eskualdean ardo saltzaile asko zineten?**

Nestor: Garai batean, 18 ardo saltzaile zeuden Durangaldean. **Esteban:** Bilbon legez, Durangon alondegi bat egon zen 70eko hamarkadara arte. Han batzen ziren ardo-saltzaileak. Ardoak muga-zerga zuen; bakoitzak zenbat ardo saltzen zuen neuritzen zen, eta horren arabera ordaintzen zuten zerga. Elkarri laguntzen zioten, baina bakoitzak bere merkatua zuen.

Ardoari izotza botatzen zaio orain.

Esteban: Bekatua da hori. Asko zabaldu den ohitura da.

Nestor: Esango nuke alkohol maila gutxitzeko egiten dela. Ardoari ezin zaio urik bota.

Ardoagaz exijenteagoak gara?

Nestor: Sibaritagoak gara. Lehen, goizean ardo zuria eta iluntzean beltza edaten zen.

Esteban: Ardo arrunta, gainera. Orain ardo mota asko dago. 80ko hamarkadan hasi zen jendea eskailerapekoa, urteko ardoa, ondua... eskatzen.

Zer hartu behar da kontuan ardo on bat hartzeko?

Nestor: Niri urteko ardoa gustatzen zait, urtero eskaintzen duelako zeozer berria.

Esteban: Horretxek du zaporerik gehien. Ardoaren ezaugarri gehienak atzematen zaizkio.

Negozioa ixtea gatz egin zaizue?

Nestor: Pena eman zigun, negozio txiki asko dabiltzalako zarratzen. Aitagaz hasi eta gugaz jarraitu duten bezero fidelak izan ditugu, gainera. Raulek negozioa hartuko zuela ikusita, asko poztu ginen.

Esteban: Gainera, pasioz bizi du ardo mundua. Oso eskertzekoa da gure bezeroen leialtasuna. Asko lagun onak dira.



SAN ROKE BARRIA II

Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 **sukia.com**

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.